

EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako ordezkariak elkarretaratzea egin dute Bilboko epaitegien aurrean. Adostutako soldatak ordaintzeko epaiketa izan da gaur

Sindikatuak otsailean sinatutako greba amaierako akordioan adostutako soldata igoerak ordaintzen ez dituztelako epaitegietan salatu dituzte patronalak

Patronalak Greba amaierako akordioan jasotako eduki bakan batzuk aplikatzen hasi dira alde bakarreko irizpideak erabiliz. Esaterako, zenbait kolektiboetarako adostutako lanaldi murrizketak edo Lanbide Heziketako konpentsazioa. Beste eduki batzuk, berriz, ez dira bete, hala nola, soldaten kasuan: ez dituzte ordaindu 2024ko finkatutako igoerak, akordioak hala behartzen badie ere, eta ez dute zehaztu soldata eguneratuen ordainketarekin hasteko datarik. Soldata igoera Jaurlaritzaren onespeneraren eta finantziazioaren araberakoa izan dadila nahi dute.

Hori horrela, ikastetxe horietan ordezkariak duten sindikatu guztiek bide judizialari ekin diote. 2024rako adostutako soldata ordainketak erreklamatzeko gatazka kolektiboko demanda bat aurkeztu zuten EAEko Auzitegi Nagusian. Gaur izan da soldatak ordaintzeko demanda aztertzeko epaiketa.

Epaiketa aurretik ikastetxe hauetako ehundaka ordezkariak elkarretaratzea egin dute epaitegi aurrean. Bertan gogoratu dute Otsailaren 5ean sinatu zela akordioa 14 greba egun eta mobilizazioen ondorioz; Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahai negoziatzailean ordezkariak daukaten patronalek eta sindikatu guztiek sinatu zutela; akordioa indarrean dagoela eta langileek akordioa bete dutela. Horrela, greba bertan behera utzi zuten sinatu zen egunetik.

Halaber, akordioa sinatu eta zortzi hilabetera, patronalek eta eskolek ez dute akordioa bete. Sindikatuen ekimenez dozena bat bilera egin diren arren, greba amaierako akordioan sinatutakoa berriro negoziatzeko saiakeran dabiltza patronalak, eta oztopoak jartzen ari dira bertako edukiak adostutako baldintzetan hitzarmenean txertatzeko.

Sindikatuak akordioko eduki bakoitza betearazteko beharrezko tresnak aktibatuko dituzte; hala nola, materia bakoitza betetzeko epea iristen denean epaitegietako bidea zein akordioa betearazteko mobilizazioen bidea.

Patronalei eskatzen diete greba amaierako akordioa adostutako baldintzetan betetzeko eta hitzarmenean txertatzeko.

2024ko urriaren 15ean



Representantes de los centros educativos de Iniciativa Social de la CAV se han concentrado ante los juzgados de Bilbao. Hoy ha sido el juicio por el impago de los salarios acordados

Los sindicatos se han visto obligados a denunciar a las patronales en los juzgados por no pagar las subidas salariales pactadas en el acuerdo de fin de huelga firmado en febrero

Las patronales y centros han comenzado a aplicar algunos pocos contenidos recogidos en el acuerdo de fin de huelga utilizando criterios unilaterales. Por ejemplo, las reducciones de jornada pactadas para determinados colectivos o la compensación en Formación Profesional. Otros contenidos no se están cumpliendo, como en el caso de los salarios: no han abonado los incrementos acordados para 2024 pese a que el acuerdo así les obliga, ni han concretado una fecha para comenzar con el pago de los salarios actualizados. Pretenden que el incremento salarial dependa de la aprobación y financiación del Gobierno.

Por ello, todos los sindicatos con representación en éste sector han iniciado la vía judicial. Presentaron una demanda de conflicto colectivo ante el TSJPV para reclamar los pagos salariales pactados para 2024. Hoy se ha celebrado el juicio para estudiar la demanda del impago salarial.

Antes del juicio, cientos de representantes de estos centros se han concentrado ante el juzgado. Han recordado que el acuerdo se firmó el pasado 5 de febrero como consecuencia de 14 días de huelga y movilizaciones; que lo firmaron las patronales y todos los sindicatos representados en la mesa de negociación; que el acuerdo está vigente y que los trabajadores y trabajadoras han cumplido el acuerdo. Así, la huelga fue desconvocada desde el día de su firma.

Sin embargo, ocho meses después de la firma del acuerdo, patronales y centros lo están incumplido. A pesar de que se han celebrado una docena de reuniones a iniciativa de los sindicatos, las patronales están intentando renegociar lo firmado en el acuerdo de fin de huelga y están poniendo trabas a que sus contenidos se integren en el convenio en los términos acordados.

Los sindicatos activarán los instrumentos necesarios para la aplicación y cumplimiento de cada uno de los contenidos del acuerdo, como son la vía judicial como las movilizaciones pertinentes para la ejecución del acuerdo cuando llegue el plazo de cumplimiento de cada materia.

Instan a las patronales a cumplir el acuerdo de fin de huelga en los términos pactados y a incorporarlo al convenio.

15 de octubre de 2024



